

USURBIL / Udal liburutegia goiz eta arratsaldez irekita astelehenetik ostiralera bitartean

Liburutegia ia egun osoan zehar erabili ahal izango da hemendik aurrera.

USURBIL. DV. Udal liburutegiak ordutegi berriarekin ekin dio ikasturte berriari. Sutegi eraikina ireki zenetik aurrez udaletxean kokatuta zegoeneko ordutegi bera izan du orain arte, baina hemendik aurrera goiz eta arratsaldez erabiltzeko moduan izango dira usurbildarrak.

Orain arte astean zehar arratsaldez irekitzen zituen ateak udal liburutegiak eta asteazkenetan bakarrik izaten zen goizez ere irekita, baina dagoeneko goizean eta arratsaldean erabiltzeko aukera izango dute liburutegiko erabiltzaileek. Astelehenetik ostiralera 10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 19.30etara erabiltzeko moduan izango dira bertan dauden zerbitzu desberdinak.

Asteburuari dagokionez, hemendik aurrera larunbatero irekita egongo da Sutegiko udal liburutegia. Orain arte bi larunbatetik behin zabalitzen zuten 10.00etatik 13.00era, baina aurrerantzean larunbatero joan ahal izango da bertara ordutegi berdina mantenduaz.

Honenbestez hainbat eta hainbat herritarren eskaera bete du udalak. Erabiltzaile askok ordutegi murritzegia zela irizten zuen. Arratsaldez bakarrik, ikastolako ordutegiaren arabera irekitzea gutxiegi zela esaten zuen jende askok, eta hemendik aurrera goiz eta arratsaldez eta larunbatetan irekita mantenduko udal liburutegia.

2005eko urriaren hasieran ireki zituen bere ateak lehen aldiz herritarrentzat Sutegiko udal liburutegiak. Ordu arte udaletxean kokatuta zegoen herritarrentzat bideratutako liburutegia.